| NAN<br>*DNI* | IZENA ETA DEITURAK<br>*NOMBRE Y APELLIDOS* | OPOSIZIOA<br>*OPOSICIÓN* | LEHIAKETA<br>*CONCURSO* | GUZTIRA<br>*TOTAL* |
|---|---|---|---|---|
| 16.240.699 | FERNANDEZ UNDIANO, ARACELI | 61,0000 | 38,0000 | 99,0000 |
| 15.927.941 | CHICO GONZALEZ, TERESA | 61,0000 | 38,0000 | 99,0000 |
| 15.947.556 | LOYARTE MAYA, MARIA DEL CARMEN | 63,0000 | 35,8200 | 98,8200 |
| 14.885.933 | BARDECI TORRES, FERNANDO | 60,0000 | 38,0000 | 98,0000 |
| 14.937.706 | RUIZ URIEN, MARIA SORAYA | 60,0000 | 38,0000 | 98,0000 |
| 15.901.398 | BEARES PRELLEZO, MARIA TERESA | 58,0000 | 38,0000 | 96,0000 |
| 14.947.442 | GABIOLA IMAZ, MARIA LOURDES | 62,0000 | 33,1200 | 95,1200 |
| 72.658.916 | MALON AZPILICUETA, BEGOÑA | 56,0000 | 38,0000 | 94,0000 |
| 16.026.101 | LANDIN UGARTE, ELENA | 56,0000 | 38,0000 | 94,0000 |
| 24.404.029 | FERRER SARAZOBAR, SORAYA | 56,0000 | 38,0000 | 94,0000 |
| 16.029.746 | DEUSTO SANCHEZ, ANA ELENA | 56,0000 | 38,0000 | 94,0000 |
| 14.215.816 | MENDEZ ORMAETXEA, M.ª DOLORES | 55,0000 | 38,0000 | 93,0000 |
| 40.834.312 | VILCHES LATORRE, JAVIER | 55,0000 | 38,0000 | 93,0000 |
| 14.905.681 | MARTINEZ RIVERO, ANA MARIA | 55,0000 | 38,0000 | 93,0000 |
| 24.400.127 | GUTIERREZ MINTEGUI, ANGELA | 55,0000 | 38,0000 | 93,0000 |
| 15.928.639 | URRESTI ORAYEN, ANA MARIA | 55,0000 | 38,0000 | 93,0000 |
| 14.568.166 | CAREAGA DOMINGUEZ, FRANCISCO JAVIER | 55,0000 | 38,0000 | 93,0000 |
| 14.239.767 | SUSAETA DIEZ, IÑIGO | 54,0000 | 38,0000 | 92,0000 |
| 16.031.445 | SAN PEDRO URIARTE, ESPERANZA | 54,0000 | 38,0000 | 92,0000 |
| 15.944.235 | IMAZ URRUTIKOETXEA, MARIA BELEN | 55,0000 | 36,9000 | 91,9000 |
| 16.025.142 | MARTIN SOMOKURCIO, JOSE IGNACIO | 52,0000 | 38,0000 | 90,0000 |
| 14.944.666 | GUEREDIGA URRUCHA, ARANTZA | 52,0000 | 38,0000 | 90,0000 |
| 14.244.817 | CHILLON GARCIA, M.ª BEGOÑA | 50,0000 | 38,0000 | 88,0000 |
| 12.695.696 | LEON ARREAL, MARTINA | 56,0000 | 31,8600 | 87,8600 |
| 22.717.149 | MARTINEZ DIEZ, OBDULIA | 52,0000 | 35,2800 | 87,2800 |
| 14.954.349 | ALCEDO SARACHAGA, AMPARO | 50,0000 | 34,7400 | 84,7400 |
| 72.430.597 | LARREA ZURIARRAIN, MARIA ROSARIO | 51,0000 | 31,6800 | 82,6800 |
| 14.580.802 | MERINO MERINO, MARIA SAGRARIO | 52,0000 | 29,3400 | 81,3400 |
| 9.694.696 | GONZALEZ VADILLO, CARLOS | 55,0000 | 13,5200 | 68,5200 |

# Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

## KULTURA SAILA

## Zk-1587

EBAZPENA, 2004ko martxoaren 11koa, HABEren zuzendari nagusiarena, helduen euskalduntzearen lehen eta bigarren mailak egiaztatzeko 2003/2004 ikasturterako azterketen deialdia egiten duena.

Kultura sailburuaren 2003ko abuztuaren 6ko Aginduaren bidez erabaki zen Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluan ezarritako euskararen ezagutza maila egiaztatzeko sistema zehaztea.

Aipatutako abuztuaren 6ko Aginduko 8. artikuluak ezartzen du ezagutza maila horiek egiaztatzen dituz-

# Cursos de formación y perfeccionamiento

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

## N°-1587

RESOLUCIÓN, de 11 de marzo de 2004, del Director General de HABE, por la que se realiza la convocatoria de exámenes para el curso 2003/2004 relativos a la acreditación del primer y segundo nivel establecido por el Currículo Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos.

Mediante Orden de la Consejera de Cultura, de 6 de agosto del 2003, se procedió a la determinación del sistema de acreditación de los diferentes niveles de conocimiento del euskera que establece el Currículo Básico para la Enseñanza del Euskera a adultos.

El artículo 8 de la mencionada Orden de 6 de agosto establece que para la obtención de los certificados que

ten ziurtagiriak lortzeko, ezinbestekoa izango dela maila bakoitzari dagokion gaitasun-azterketa gainditzea. Halaber, Agindu horretako 9. artikuluak, ziurtagiriak lortzeko azterketen ezaugarri orokorrei buruzkoak, ahalmena ematen dio HABEko zuzendari nagusiari, ebazpen bidez egindako deialdietan maila egiaztatzeko azterketa bakoitzaren nondik norakoak ezartzeko.

Ebazpen honen helburua da aurreko paragrafoan esandakoa betetzea, eta beraz, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluak ezarritako euskararen ezagutzaren lehen eta bigarren mailei dagozkien azterketen 2003/2004 ikasturteko deialdia egitea. Hirugarren mailari dagokionez, abuztuaren 6ko Agindu horretako Lehenengo Xedapen Gehigarriak dioenari lotuko zaio, eta hauxe dio: «Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren hirugarren mailari dagokionez, ez dela oraingoz azterketa-deialdirik egingo, eta beraz, Kultura Sailak ez ditu maila honetako ziurtagiriak emango. Deialdia egiten ez den bitartean, hirugarren maila ziurtatu nahi duten ikasleek EGAren deialdi irekira edo itxira aurkezteko aukera izango dute».

Hori dela eta,

EBATZI DUT:

*1. artikulua.–* Helburua.

Deialdi honen xedea da 2003/2004 ikasturtean Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluan ezarritako lehen eta bigarren mailak egiaztatzeko sistemaren xehetasunak ematea.

Ikasturte honi dagokionez, deialdia bakarra izango da.

*2. artikulua.–* Ikasleek bete beharreko baldintzak.

HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan 2003/2004 ikasturtearen barruan matrikula egina duten ikasleek har dezakete parte. Ezinbestekoa izango da jarraian aipatzen diren baldintza hauek ere betetzea, aurkezten den mailaren arabera:

a) Lehen mailako azterketak.

2003/2004 ikasturtean lehen mailan matrikulatua egon, (HABEren 1989ko programako lehenengo urratsetik seigarrenera bitartean), eta azterketaren matrikula egiterako lehen maila (HABEren 1989ko programako seigarren urratsa) gaindituа duten ikasleek har dezakete parte lehen mailako azterketetan.

b) Bigarren mailako azterketak.

Lehen edo bigarren mailan matrikulatua egon, (HABEren 1989ko programako lehenengo urratsetik bederatzigarrenera bitartean), eta azterketaren matrikula egiterako bigarren maila (HABEren 1989ko progra-

acrediten los niveles descritos en la misma será requisito necesario la superación de un examen relativo al nivel correspondiente. Asimismo, el artículo 9 de la citada Orden, relativo a las características generales de los exámenes para la obtención de los certificados, faculta al Director General de HABE para que, en las convocatorias que realice mediante resolución, establezca las particularidades de cada examen de acreditación de nivel.

Es objeto de la presente Resolución dar cumplimiento a lo indicado en el párrafo anterior y, por tanto, realizar la convocatoria para el curso 2003/2004 de los exámenes relativos al primer y al segundo nivel de conocimiento del euskera que establece el Currículo Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos. En cuanto al tercer nivel, se estará a lo dispuesto en la Disposición Adicional Primera de la mencionada Orden de 6 de agosto, que señala lo siguiente: «En lo que respecta al tercer nivel del Currículo Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos, de momento no se convocarán exámenes y, por tanto, no se expedirán certificados del Departamento de Cultura que acrediten dicho nivel. En tanto no se realice dicha convocatoria, las personas que quieran acreditar el tercer nivel podrán presentarse tanto a la convocatoria libre como a la restringida del examen de aptitud EGA.»

En su virtud,

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Objeto.

Es objeto de la presente convocatoria establecer para el curso 2003/2004 las directrices del sistema de acreditación del primer y segundo nivel establecido por el Currículo Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos.

La convocatoria del presente curso será única.

*Artículo 2.–* Requisitos que deberán cumplir los candidatos.

Podrán examinarse aquellos alumnos y alumnas que en el transcurso del curso 2003/2004 se hayan matriculado en los euskaltegis o centros homologados de autoaprendizaje del euskera inscritos en el registro de HABE. Serán también de obligado cumplimiento los siguientes requisitos, en función del nivel al que opten.

a) Exámenes del Primer Nivel.

Estar o haber estado matriculado en el curso 2003/2004 en el primer nivel (correspondiente a los niveles 1 al 6 del programa de HABE de 1989) y tener superado dicho primer nivel (el nivel 6 del programa de HABE de 1989) antes de realizar la matrícula del examen.

b) Exámenes del Segundo Nivel.

Estar o haber estado matriculado en el curso 2003/2004 en el primer o segundo nivel (correspondiente a los niveles 1 al 9 del programa de HABE de 1989) y tener superado el segundo nivel (el nivel 9 del

mako bederatzigarren urratsa) gainditua duten ikasleek har dezakete parte bigarren mailako azterketetan.

Halaber, Alfabetatzen 1 mailan matrikulatua egon eta azterketaren matrikula egiterako maila hori gainditua duten ikasleek ere har dezakete parte bigarren mailako azterketetan.

*3. artikulua.–* Matrikulazio-epea.

Azterketetan parte hartzekotan, matrikulak egiteko epea 2004ko apirilaren 26tik maiatzaren 5era (biak barne) izango da.

Epea hasterako euskaltegi edo zentroak ikasleari jakinaraziko dio azterketa egiteko behar duen maila gainditu duen.

*4. artikulua.–* Matrikularen prezioa.

Matrikularen prezioa 12 eurokoa izango da maila bakoitzeko. Bi mailetara aurkeztu nahi duenak, horretarako baldintzak betetzen baditu, bi matrikula egin beharko ditu.

*5. artikulua.–* Matrikula bideratzeko era.

Azterketarako izena ematea Internet bidez egingo da www.habe.org ataria erabiliz, eta ondorioz, ikasleak horretarako aukera duen edozein leku publiko eta pribatutan egin ahal izango du.

Era berean, matrikula bideratzeko aukera izango du ikasleak 2003/2004 ikasturtean ikasten ari den edo aritu den euskaltegi edo zentroan eta baita HABEren Donostia (Vitoria-Gasteiz kalea, 3), Gasteiz (Samaniego kalea, 2) eta Bilboko (Nikolas Alkorta, 2) egoitzetan ere.

Matrikularen ordainketa ere Internet bidez egin ahal izango da, baita horretarako bidea eskaintzen duten kutxa edo banketxeen bitartez ere, izena ematean eskuratuko duen inprimakia erabiliz.

*6. artikulua.–* Onartuen zerrendak.

Matrikula egiteko epea amaitu ondoren onartutako azterketarigaien behin-behineko zerrendak erabakiko ditu HABEren zuzendari nagusiak eta euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan argitaratuko den eta www.habe.org atarian txertatuko den ebazpenaren bidez jakinaraziko dira.

Onartutako azterketarigaien behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik bost egun naturaleko epea izango dute interesatuek erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko zaizkio HABEren zuzendari nagusiari.

Epea amaituta erreklamaziorik ez bada, onartutako azterketarigaien behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da.

Erreklamaziorik egon bada, aurkeztutakoak aztertu eta ebatzi ondoren, onartutako azterketarigaien behin

programa de HABE de 1989) antes de realizar la matrícula para el examen del segundo nivel.

Así mismo, podrán presentarse al examen del segundo nivel aquellos alumnos y alumnas que estén matriculados en el nivel Alfabetatzen 1 y que hayan superado dicho nivel antes de realizar la matrícula del examen del segundo nivel.

*Artículo 3.–* Plazo de matrícula.

El plazo de matriculación para la realización de los exámenes será desde el día 26 de abril hasta el 5 de mayo de 2004 (ambos inclusive).

Antes del inicio del plazo de matriculación el euskaltegi o el centro informará al alumno si ha superado el nivel que se le exige para poder presentarse al examen.

*Artículo 4.–* Precio de la matrícula.

El precio de la matrícula será de 12 euros para cada nivel. Aquel alumno o alumna que quiera presentarse a los dos niveles, siempre que cumpla los requisitos correspondientes, deberá realizar dos matrículas.

*Artículo 5.–* Modo de formalizar la matrícula.

Se utilizará la página www.habe.org de Internet para inscribirse para el examen y, por lo tanto, el alumno o alumna podrá gestionar la matrícula en cualquier lugar público y privado que ofrezca dicha posibilidad.

Así mismo, para formalizar la matrícula se dispondrá de ordenadores en el euskaltegi o centro en el que esté (o haya estado) matriculado durante el curso 2003/2004, así como en las sedes de HABE en Donostia, (calle Vitoria-Gasteiz, 3) Bilbao (calle Nikolas Alkorta, 2) y Vitoria-Gasteiz (calle Samaniego, 2).

Así mismo podrá efectuar el pago de la matrícula a través de la banca electrónica a través de Internet o mediante pago en cajas de ahorro o bancos utilizando el impreso que recibirá al inscribirse.

*Artículo 6.–* Listado de admitidos.

Finalizado el plazo de matrícula el Director General de HABE emitirá las listas provisionales de las personas aspirantes que han sido admitidas. Dichas listas se darán a conocer mediante resolución que se publicará en los euskaltegis y centros homologados de autoaprendizaje del euskera y así mismo a través de la página www.habe.org.

Desde el día siguiente a la publicación de la lista provisional de admitidos las personas interesadas que quieran efectuar reclamaciones dispondrán de un plazo de cinco días naturales para ello. Dichas reclamaciones se efectuarán por escrito y serán dirigidas al Director General de HABE.

Una vez finalizado el plazo, si no hay ninguna reclamación, la lista provisional de solicitantes admitidos se hará definitiva.

En caso contrario, una vez examinadas y resueltas las reclamaciones presentadas, se publicará la lista defini-

betiko zerrenda argitaratuko da euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan eta www.habe.org atarian.

7. *artikulua.*– Azterketa egunak eta lekuak.

Maila ziurtatzeko azterketari guztiek bi egun desberdinetan egingo dituzte probak.

Lehenengo proba egiteko eguna ekainaren lehen hamabostaldian izango da. Egun horretan mintzamenari dagokion azterketa egingo da.

Onartuen behin betiko zerrendarekin batera adieraziko dizkio HABEk euskaltegiari edo zentroari ahozko azterketen lekuak, egunak eta orduak. Euskaltegiak edo zentroak berak jakinaraziko dio ikasle bakoitzari bere ahozko azterketaren egun eta ordu zehatza.

Bigarren proban hiru trebetasun neurtuko dira: entzumena, irakurmena eta idazmena. Lehen mailako azterketa idatzia ekainaren 18an izango da, eta ekainaren 19an, bigarren mailakoa.

Bai ahozko proba eta bai idatzia ikaslea ari den edo aritu den euskaltegi edo zentroan egingo dira, beti ere euskaltegiak edo zentroak azterketa modu egokian egiteko baldintzak betetzen baditu. Edonola ere, euskaltegi edo zentroak jakinaraziko dio bere ikasleari zein izango den bere aztertokia.

8. *artikulua.*– Azterketaren ezaugarriak.

Lehen eta bigarren mailako azterketek lau trebetasun neurtuko dituzte: mintzamena, entzumena, irakurmena eta idazmena.

Bai lehen eta bai bigarren mailako azterketariei trebetasun guztiak ebaluatuko zaizkie.

Azterketak denera 100 puntu izango ditu gehienez eta gutxieneko puntuazioa 60 puntu izango da, bai lehen mailan eta bai bigarrenean.

Alde batetik mintzamena eta entzumena ebaluatuko dira eta bestetik idazmena eta irakurmena. Zati horietako bakoitza gainditu beharko du ikasleak azken emaitzan gai izateko. Gutxieneko puntuazioa 30 puntukoa izango da bi zatietan. Gutxieneko puntuazioa izango da, halaber, bai idazmenean eta bai mintzamenean, bietan 15 puntukoa.

Ikasleari zati bakoitzaren emaitza eta azken emaitza emango zaio, era honetara: gai/ez gai.

9. *artikulua.*– Azterketen emaitzak.

Azterketen behin-behineko emaitzak HABEren zuzendari nagusiaren ebazpen bidez erabakiko dira eta euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan argitaratuko den eta www.habe.org atarian txertatuko den ebazpenaren bidez jakinaraziko dira. Emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik hasita,

tiva de los admitidos tanto en los euskaltegis y centros homologados de autoaprendizaje del euskera como en la página www.habe.org.

*Artículo* 7.– Fechas y lugar del examen.

Todos los examinandos deberán realizar las pruebas de acreditación en dos días diferentes.

El primer examen, que se realizará en la primera quincena de junio, evaluará la expresión oral.

HABE hará saber al euskaltegi o centro homologado de autoaprendizaje del euskera, junto con el listado definitivo de candidatos admitidos la fecha, lugar y hora correspondiente al examen oral. Será el euskaltegi o centro correspondiente quien transmita a cada alumno o alumna dicha información además de la hora y el lugar concreto en el que tendrá que examinarse.

La segunda prueba será la prueba escrita. En esta prueba se evaluarán tres áreas: comprensión oral, comprensión escrita y expresión escrita. La prueba escrita correspondiente al primer nivel se realizará el 18 de junio y la correspondiente al segundo, el 19 de junio.

Tanto la prueba oral como la escrita se podrán realizar en el euskaltegi o centro al que haya asistido o esté asistiendo el alumno, siempre y cuando reúna las condiciones para llevarlas a cabo de forma adecuada. En todo caso, el euskaltegi o centro informará al alumno dónde deberá realizar dicha prueba.

*Artículo* 8.– Características del examen.

En los exámenes correspondientes al primer nivel y al segundo se evaluarán cuatro destrezas: expresión oral, comprensión oral, comprensión escrita y expresión escrita.

Cada persona candidata será evaluada en las cuatro destrezas tanto en el primer nivel como en el segundo.

Cada examen tendrá una puntuación máxima de 100 puntos y una mínima de 60 puntos para superarlo, tanto en el primer nivel como en el segundo.

Se puntuará por un lado la expresión oral y la comprensión oral, y por otro, la expresión escrita y la comprensión escrita. Habrá que superar ambas partes para que el resultado definitivo sea el de apto. La puntuación mínima requerida para aprobar cada una de las dos partes es de 30 puntos. De igual modo, se exigirá una puntuación mínima de 15 puntos tanto para aprobar la expresión oral como la expresión escrita.

Al alumno o alumna se le informará tanto del resultado final como del parcial de cada una de las partes en los términos: Apto/No Apto.

*Artículo* 9.– Resultados de los exámenes.

El Director General de HABE dictará resolución con los resultados provisionales de los exámenes, y se dará a conocer tanto en la página www.habe.org como en los euskaltegis y centros homologados de autoaprendizaje del euskera. Desde el día de la publicación de los resultados las personas interesadas dispondrán de un plazo

bost egun naturaleko epea izango dute interesatuek erreklamazioak aurkezteko HABEren zuzendari nagusiaren aurrean.

Epe hori igaro ondoren, erreklamaziorik aurkeztu ez duten azterketarien emaitzak behin betiko bihurtuko dira.

Emaitzen kontrako erreklamazio epea amaituta, HABEren zuzendari nagusiak aurkeztutako erreklamazioak onartuz edo gaitzetsiz ebatziko ditu. Ebazpen hori euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan eta www.habe.org atarian argitaratuko da.

Ebazpen horren kontra gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da HABEren presidentearen aurrean, berau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Epe hori igarota, errekurtsorik aurkeztu ezean, erreklamazioen ondorioz erabakitako emaitzak behin betiko bihurtuko dira.

*10. artikulua.–* Ziurtagiria.

Azterketa hauek gaindituta mailaren bat egiaztatzen dutenek Kultura sailburuak emandako ziurtagiria jasoko dute.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa.–* Guztien ezagutzarako, ebazpen honen eranskin gisara doa 2003/2004 ikasturterako azterketen edukia.

*Bigarrengoa.–* 2003/2004ko deialdi honi dagokionez, ekaineko deialdian EGA gainditzen dutenek HABEren zuzendari nagusiak 2003ko azaroaren 24ko Ebazpeneko 2.2 artikuluan ezarritako baldintza beteko dute. Ebazpen horrek arautzen ditu euskara-mailak egiaztatzeko HABEk deitutako azterketak gainditzen dituzten euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleei emango zaizkien dirulaguntzen baldintza orokorrak.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Ebazpen honen aurka, ez baitu bide administratiboa agortzen, interesatuek gora jotzeko errekurtsoa jar dezakete HABEren presidentearen aurrean, hilabeteko epe-barruan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

*Bigarrena.–* Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita sartuko da indarrean.

Donostian-San Sebastián, 2004ko martxoaren 11.

HABEren zuzendari nagusia,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

de cinco días naturales para efectuar por escrito las reclamaciones oportunas ante el Director General de HABE.

Finalizado dicho plazo se harán definitivos los resultados de quienes no hayan cursado reclamaciones.

Finalizado el plazo de reclamaciones, el Director General de HABE resolverá las reclamaciones y se harán públicas tanto en la página www.habe.org como en los euskaltegis y centros homologados de autoaprendizaje del euskera.

Contra dicha Resolución podrán interponer recurso de alzada ante la presidenta de HABE en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente de la publicación de la misma.

Si finalizado dicho plazo no hubiera recursos, los resultados de las reclamaciones serán definitivos.

*Artículo 10.–* Certificación.

Aquellas personas que acrediten alguno de los niveles a través de estos exámenes recibirán un certificado expedido por la Consejera de Cultura.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–* Para conocimiento general, se adjunta a esta resolución los contenidos de los exámenes del curso 2003/2004.

*Segunda.–* A los efectos de la presente convocatoria 2003/2004, todas aquellas personas que participen y superen el examen de aptitud EGA en la convocatoria de junio cumplirán con el requisito establecido en el artículo 2.2 de la Resolución de 24 de noviembre de 2003, del Director General de HABE, por la que se regula el régimen general para la concesión de ayudas a los alumnos y alumnas de euskaltegis privados y centros homologados de autoaprendizaje del euskera, que superen los exámenes de acreditación de niveles de euskera, convocados por HABE.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Contra la presente resolución, ya que no agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recuso de alzada ante la presidenta de HABE, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Segunda.–* Esta Resolución entrará en vigor al día siguiente de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco.

Donostia-San Sebastián, a 11 de marzo 2004.

El Director General de HABE,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

ERANSKINA

1. mailako eta 2. mailako azterketen edukia.

1. maila: azterketaren edukia.

Proba idatzia
Irakurmena

Emandako testua edo testuak irakurri ondoren, azterketariak zenbait galdera erantzun beharko ditu. Testuaren ulermen orokorra, xehea edota informazioa testutik ateratzea eskatuko zaio azterketariari. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko. Zati honek 20 puntu izango ditu denera. Proba honen iraupena 35 minutu ingurukoa izango da.

Idazmena

Azterketariari egoera bat emango zaio testuinguru jakin batean, eta 150 hitz inguruko testu bat edo 100 inguruko bi testu idatzi beharko ditu. Testuak: inprimakiak, oharrak, gutun informalak, kontakizun laburrak... izan daitezke. Idatzien kalifikaziorako irizpide hauek hartuko dira kontuan: a) balorazio orokorra, b) baliabide linguistikoak eta hizkuntzaren aberastasuna eta egokitasuna, eta c) zuzentasuna. Zati honek gehienez 30 puntu izango ditu eta gainditzeko 15 puntu lortu beharko ditu. Proba honen iraupena 60 minutu ingurukoa izango da.

Bi proba horiek batera gehienez ordubete eta hogeita hamabost minutuko iraupena izango dute.

Ahozko proba
Entzumena

Trebetasun honi dagokion ariketa azterketa idatziaren egunean egingo da.

Azterketariak eguneroko bizitzako edo ohiko gaien inguruko 2 testu entzun/ikusiko ditu (audioan edo bideoan). Testu horien ulermena frogatu beharko du, egingo zaizkion zenbait galderari erantzunez. Testua luzea izan liteke (5/6 minutu ingurukoa, bi zatitan) edo zenbait testu labur (minutu 1 ingurukoa), minutu kopurua osatu arte. Testuko ideia nagusia, informazio garrantzitsua edota xehetasun batzuk ulertu beharko ditu. Zati honek 20 puntu izango ditu denera. Proba honen iraupena 25 minutukoa izango da, gehienez.

Mintzamena

Azterketariak elkarrizketa bat izango du bi aztertzailerekin. Probak hiru zati izango ditu: a) aztertzaileen galderak, sarrera gisa, b) gai batekin lotutako elkarrizketa, argazki bat oinarri hartuta, eta c) gai horri buruzko elkarrizketa aztertzaileekin eta azterketariaren azalpenak.

ANEXO

Contenido de los exámenes del Nivel 1 y Nivel 2

Nivel 1: contenido del examen

Prueba escrita
Comprensión escrita

Después de leer el texto o textos propuestos, el examinando deberá responder a algunas preguntas. Las preguntas serán relativas a la comprensión global del texto, o bien a la comprensión parcial, o bien se le solicitará obtener información a partir del texto. No se detraerán puntos por las respuestas erróneas. Este ejercicio tendrá una puntuación máxima de 20 puntos y una duración de 35 minutos aproximadamente.

Expresión escrita

Al examinando se le planteará una situación en un contexto determinado, y deberá redactar un texto de unas 150 palabras, o dos textos de unas 100 palabras. El formato de los textos podrá ser: impresos, notas, avisos, cartas informales, narraciones breves.... Para calificar los ejercicios se tendrán en cuenta los siguientes criterios: a) valoración global b) riqueza y adecuación lingüística y c) corrección. Este ejercicio tendrá una puntuación máxima de 30 puntos, y una mínima de 15 puntos para superarlo y tendrá una duración aproximada de 60 minutos.

La duración conjunta de estos dos ejercicios será como máximo de una hora y 35 minutos.

Prueba oral
Comprensión oral

Este ejercicio se realizará el día del examen escrito.

El examinando escuchará/verá (en audio o video) 2 textos relacionados con temas cotidianos. Deberá demostrar la comprensión de dichos textos a través de las preguntas que se le formulen. El texto podrá ser un texto extenso (5/6 minutos aproximadamente, dividido en dos partes) o varios breves (de 1 minuto aproximadamente) hasta completar el tiempo establecido. Deberá comprender la información principal o algunas particularidades del texto escuchado. Este ejercicio tendrá una puntuación total de 20 puntos. La duración de esta prueba no sobrepasará los 25 minutos.

Expresión oral

El examinando mantendrá una entrevista con dos examinadores. La prueba constará de tres partes: a) preguntas del examinador a modo de introducción, b) conversación a partir de una fotografía y c) conversación con los examinadores y explicaciones del examinado acerca de ese mismo tema.

Proba neurtzeko irizpideak izango dira: a) hizkuntzaren egokitasuna eta jariotasuna, b) diskurtsoaren antolaketa eta elkarreragina, eta c) hizkuntzaren aberastasuna eta zuzentasuna. Gehienez 30 puntu izango ditu eta zati hau gainditzeko 15 puntu beharko ditu. 10 minutu inguru emango ditu proba egiten eta 15 minutu izango ditu gaia prestatzeko.

2. maila: azterketaren edukia.

Proba idatzia
Irakurmena

Emandako testua edo testuak irakurri ondoren, azterketariak zenbait galdera erantzun beharko ditu. Testuaren ulermen orokorra, xehea, informazioa testutik ateratzea, idazlearen jarrera eta gaia bereiztea edota bestelako osagai linguistikoak ulertzea eskatuko zaio azterketariari. Zati honek 20 puntu izango ditu denera. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko. Proba honen iraupena 45 minutu ingurukoa izango da.

Idazmena

Azterketariari egoera bat emango zaio eta 250 hitz inguruko testu bat edo 150 inguruko bi testu idatzi beharko ditu. Testuak: oharrak, gutun informalak eta formalak, kontakizunak, deskribapenak, azalpen laburrak, kronikak... izan daitezke. Idatzien kalifikaziorako irizpide hauek hartuko dira kontuan: a) balorazio orokorra, b) baliabide linguistikoak eta hizkuntzaren aberastasuna eta egokitasuna eta c) zuzentasuna. Zati honek gehienez 30 puntu izango ditu eta gainditzeko 15 puntu lortu beharko ditu. Proba honen iraupena 60 minutu ingurukoa izango da.

Bi proba horiek batera gehienez ordubete eta berrogeita bost minutuko iraupena izango dute.

Ahozko proba
Entzumena

Trebetasun honi dagokion ariketa azterketa idatziaren egunean egingo da. Azterketariak eguneroko bizitzako edo ohiko gaien inguruko 2 testu entzun/ikusiko ditu (audioan edo bideoan). Testu horien ulermena frogatu beharko du, egingo zaizkion zenbait galderari erantzunez. Testua luzea izan liteke (5/6 minutu ingurukoa, bi zatitan) edo zenbait testu labur (minutu 1 ingurukoa), minutu kopurua osatu arte. Testuko ideia nagusia, informazio garrantzitsua edota xehetasun batzuk ulertu beharko ditu edo hizlariaren jarrera eta informazioa bereizten eta ondorioak ateratzen jakin beharko du. Zati honek 20 puntu izango ditu denera. Proba honen iraupena 25 minutukoa izango da gehienez.

Mintzamena

Azterketariak elkarrizketa bat izango du bi aztertzailerekin. Probak hiru zati izango ditu: a) aztertzaileen

Los criterios para evaluar serán los siguientes: a) uso adecuado y fluidez del idioma, b) organización e interacción del discurso y c) riqueza y corrección del idioma. La prueba no superará los 30 puntos y para superarla habrá que lograr un mínimo de 15 puntos. El examinando dispondrá de 15 minutos para preparar el tema y de unos 10 minutos para realizar la prueba.

Nivel 2: contenido del examen

Prueba escrita
Comprensión escrita

Después de leer el texto o textos, el examinando deberá responder a unas cuantas preguntas. Se le pedirá la comprensión global o parcial del texto, o que obtenga información de dicho texto, que sepa distinguir entre lo que es el tema y lo que es la intención del escritor, o la comprensión de algunos elementos lingüísticos. Este ejercicio tendrá una puntuación máxima de 20 puntos y una duración de 45 minutos aproximadamente.

Expresión escrita

Al examinando se le planteará una situación en un contexto determinado, y deberá redactar un texto de 250 palabras aproximadamente o bien 2 textos de aproximadamente 150 palabras. Para calificar los ejercicios se tendrán en cuenta los siguientes criterios: a) valoración global b) riqueza y adecuación lingüística y c) corrección. Este ejercicio tendrá una puntuación máxima de 30 puntos, y una mínima de 15 puntos para superarlo y tendrá una duración aproximada de 60 minutos.

La duración conjunta de estos dos ejercicios será como máximo de una hora y 45 minutos.

Prueba oral
Comprensión oral

Este ejercicio se realizará el día del examen escrito. El examinando escuchará/verá (en audio o video) 2 textos relacionados con temas cotidianos o de interés general. Deberá demostrar la comprensión de dichos textos a través de las preguntas que se le formulen. El texto podrá ser un texto extenso (5/6 minutos aproximadamente, dividido en dos partes) o varios breves (de 1 minuto aproximadamente) hasta completar el tiempo establecido. Deberá comprender la información principal o algunas particularidades del texto escuchado, distinguir la información de la opinión o sacar conclusiones de lo que ha escuchado respondiendo a las preguntas que se le formulen. Este ejercicio tendrá una puntuación total de 20 puntos. La duración de esta prueba no sobrepasará los 25 minutos.

Expresión oral

El examinando mantendrá una entrevista con dos examinadores. La prueba constará de tres partes: a) pre-

galderak, sarrera gisa, b) gai batekin lotutako elkarrizketa, argazki bat oinarri hartuta, eta c) gai horri buruzko elkarrizketa aztertzaileekin eta azterketariaren azalpenak eta gaiaren inguruko ikuspuntua.

Proba neurtzeko irizpideak izango dira: a) hizkuntzaren egokitasuna eta jariotasuna, b) diskurtsoaren antolaketa eta elkarreragina, eta c) hizkuntzaren aberastasuna eta zuzentasuna. Zati honek gehienez 30 puntu izango ditu eta gainditzeko 15 puntu lortu beharko dira. 10 minutu inguru emango ditu proba egiten eta 20 minutu izango ditu gaia prestatzeko.

Puntuazioa

Ahozko eta idatzizko zatien ariketak eta puntuazioak honela banatuko dira:

guntas del examinador a modo de introducción, b) conversación a partir de una fotografía y c) conversación con los examinadores y explicaciones y puntos de vista del examinado acerca de ese mismo tema.

Los criterios para evaluar serán los siguientes: a) uso adecuado y fluidez del idioma, b) organización e interacción del discurso y c) riqueza y corrección del idioma. La prueba no superará los 30 puntos y para superarla habrá que lograr un mínimo de 15. El examinando dispondrá de 20 minutos para preparar el tema y unos 10 minutos para realizar la prueba.

Puntuación

Los ejercicios y puntuaciones referentes a las pruebas orales y escritas se distribuirán de la siguiente manera:

1. MAILAKO ETA 2. MAILAKO AZTERKETEN PUNTUAZIOAK ETA ARIKETAK

| PUNTUAZIOA | | Ariketa | Guztira | Gutxienez |
|---|---|---|---|---|
| A MULTZOA (proba idatzia) | %50 | | | 30 |
| IRAKURMENA | 1. Ariketa | | 20 | |
| | 2. Ariketa | | | |
| IDAZMENA | 1. Ariketa | | 30 | 15 |
| | (2. Ariketa) | | | |
| B MULTZOA (ahozko proba) | %50 | 30 | | |
| ENTZUMENA | 1. Ariketa | | 20 | |
| | (2. Ariketa) | | | |
| MINTZAMENA | Ariketa | | 30 | 15 |
| GUZTIRA | | | 100 | 60 |

*NIVEL 1 Y NIVEL 2: EJERCICIOS Y PUNTUACIÓN DE LOS EXÁMENES*

| *PUNTUACIÓN* | *Ejercicio* | *Total* | *Mínimo* | |
|---|---|---|---|---|
| *APARTADO A (prueba escrita)* | *%50* | *30* | | |
| *Comprensión escrita* | *Ejercicio 1* | | *20* | |
| | *Ejercicio 2* | | | |
| *Expresión escrita* | *Ejercicio 1* | | *30* | *15* |
| | *(Ejercicio 2)* | | | |
| *APARTADO B (prueba oral)* | *%50* | *30* | | |
| *Comprensión oral* | *Ejercicio 1* | | *20* | |
| | *(Ejercicio 2)* | | | |
| *Expresión oral* | *Ejercicio* | | *30* | *15* |
| *TOTAL* | | | *100* | *60* |

Emaitza: A multzoan: GAI/EZ GAI
B multzoan: GAI/EZ GAI
Guztira: GAI/EZ GAI

Resultado: Apartado A: Apto/No apto
Apartado B: Apto/No apto
Total: Apto/No Apto